

# Errelatoak, fikzioak kara

Mikel Asumendi

Errateko zituen, baita gogotik erran ere (Pello Salaburu, Arizkun, 1951). Jainkoa Arizkungo ala Cuscokoa izan, alajainkoa edota hala jainkoa! Erraturiz etxaldean sortu *ttalla* ezagutu dugu, hala Baztan nola Cuzco poxi bat gehiago ezagutu ere. Areago, *ttalla* edo mutiko hura ez ezik, gizakia bilakatu gaztea ere bai.

Nafarroa Garaia baino goitiago dagoen Peruko Cusco hiriraino eramán gaitu Salaburuk, hegaz eramán ere. Hagitz goitik egin du hegan: Paris, Amsterdam, Arizona edota Txilen gaindi ibilki da, lur arrasean ibili ere. Mundualdiko kronika izan ezik, Euskal Herrikoa kronika taxutu du.

Autobiografia bada ere, liburua ez da arras biografikoa. Ez da nobela, ez poesia, ez ipuina, ezta historia erreala ere. Alta, dena erreala baillitzan irentsi daiteke. Irentsi! Bai horixe. Mikel Laboaren *Baztan* kantuak gaztetan irentsi —Joxan Artzeren eleetan— gintuen antzera.

Pello Salaburu ez dut ezagutzen, ez dut behin ere kara kara

izan, alabaina, *Errateko nituenak* irakurri ondotik, berarekin topo eginez gero, bertzela behatuko diot. Kontakizunok errealtatean eraikitako fikzioak kara dira —fikzioak antzo, baztandarren moldean erranik—. Idazleak ironia darabil, eta zenbaitetan irakurleoi adarra jo ote digun inpresioa daukat. Ironia goxo-goxo dario bere eleoi alta, Sylvia Kristelen behako eztiak kara.

*Cuzcoko kronika* istorioen bidez kontatutako —gure eta bere historia da. 2012ko urriaren 1etik urriaren 6ra bitarte narratua, astelehenetik larunbatera. Igan-dea, Arizkungo *erraturiztarrek* egin legez, atsedean eguna harturik. Kristau jaioak gara euskaldunok, bai horixe! Gizaldi honetara bitartekook bederen. Gerokoak nolako izanen diren, jakizu! Anartean, gure historiaren errelatoa egin beharra dugun garaion, ongi jinak Pello Salaburuk errateko zituenak.

Liburuaren azaleko armarría abiaburu harturik, kontakizunak antzinatik etorkizunera ibilarazten gaitu, presenteaz ere mintzo delarik: goitik ibilita, xumeen ingurumaria narratuz.

Cuscotarrek greba egunak egiten duteinoko egunak kontatuz, konparazione. Idazlea cuscotarrez ari denean gure buruaz ari ote? Ironikoa dirudi, hori horrela galdetzea ere. Edonola dela ere, Euskal Herria tipia eta xumea da eta Cuzco hiria habitatzen duten indigenak bezala, euskaldunok historia ere xumea dugu. Alabaina, Inka inperioaren indigenen antzera, gu ere konkistatuak eta konkistatzaileen arrimuan aritutakoak gara.

*Errateko nituenak* izenburuak berak ohartarazten gaitu libu-



## 'ERRATEKO NITUENAK'

- Egilea: Pello Salaburu.
- Argitaletxea: Erein.

ruaren asmoaz eta jakitez. Seminarioan lehenik, *ttalla* zelarik. Gaztea zelarik gero, unibertsitatean zaildua. Unibertsitatean eta Euskaltzaindian —*Bazkaltzaindia*-ko bilkura surrealistetan— azkartua gero, ekinez eta jarraituz jalgi zen mundura Salaburu! Konparazionera hau ere: ez du ahoan bilorik, ez sexualitateaz ari denean —Sylvia Kristel behin eta berriz oroit— ez Juan Jose Ibarretxe —lehendakari, alegia deus ez!— nahiz Miren Azkarate bidai eta lagun pasadizoez ari denean. Atseginez mintzo zaigu Elisa eta Carmina lagun berriez; artean Janire Marling lokamuts duelarik.

Pizarro, Anquetil edo Koldo Etxandi ere aurkituko dituzu kontakizunean, bertzeak bertze. Lehen bien izenak ezagunak zaizkizu, bigarrena ez. Fikziozko izena duzu, hagitz erreala haatik. Koldo Etxandi inguratzen gaituzten estatuetako espetxe batean aurki dezakezu preso. Bertatik irteteko eskubidea dauka, «nola» atera baina! Hori errealtate gordina. *Errateko nituenak* errelato gisakoa da, benetakoa, fikzioak kara ederki narratua.

## 'EZINBESTEAN'

- Egilea: Unai Baztarrika.
- Argitaletxea: Erein.

Blas de Otero-Bilbo Hiria poesia saria irabazitako lana da Unai Baztarrikaren *Ezinbestean* poema liburua. «Ezinbestean idatzitako lerroak dituzu hauek», adierazi du egileak bere lanaren berri emateko, «Luzaroan gordeak nituen ideia harriztatuak, paperera eramának. Errailetatik bertatik erazitako poema sare itoa da».



## 'EUSKALKIAK'

- Egilea: Koldo Zuazo.
- Argitaletxea: Elkar.

Lehendik ere erakutsiak zituen euskalkiak eta eremu supradialektalak hobeto zehaztu ditu Zuazok liburu honetan. Horrez gain, azpieuskalkiak ere aurkeztu ditu: 11 dira guztira, eta lehen aldiz azaltzen dira. Hamasei hizkera berezi ere badaudela esaten du egileak, eta horietako sei erakusten ditu.